

Artea eta Txina 1989 ondoren: Munduaren antzerkia

2018(e)ko maiatzak 11 – 2018(e)ko irailak 23

Gaiak | Ding Yi, Gurutzeen itxura 1991-3 (Appearance of Crosses, 1991)

[Argazkigintza](#) | [Arkitektura](#) | [Dekorazio- artea](#) | [Eskultura](#) | [Instalazioa](#) | [Pintura](#) | [Serigrafia](#) | [Argazkigintza](#) | [Arkitektura](#) | [Dekorazio- artea](#) | [Eskultura](#) | [Instalazioa](#) | [Pintura](#) | [Serigrafia](#) | [Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia](#) | [Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa](#) | [Hizkuntza eta Literatura](#) | [Informatika](#) | [Teknologia](#) | [Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia](#) | [Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa](#) | [Hizkuntza eta Literatura](#) | [Informatika](#) | [Teknologia](#)

- Sarrera



Ding Yi, *Gurutzeen itxura 1991-3 (Appearance of Crosses, 1991)*

Akrilikoak mihise gainean, 140 x 180 cm

© Ding Yi artistaren bilduma

Artea eta Txina 1989 ondoren: Munduaren antzerkia Txinako arte garaikideari buruzko erakusketa handi bat da, eta Txinaren nahiz munduaren azken urteotako historiaren aldi eraldatzaileena aurkezten digu: 1989tik 2008ra bitartekoa. Gerra Hotza amaitu eta **globalizazioa** agertu zenetik Txina munduko potentzia gisa gorantz hasi eta 2008an Pekinen Joko Olinpikoak izan ziren arte luzatzen da aldi hori. Erakusketan lehen mailako 70 bat artista eta talde txinatarrek hartzen dute parte, eta 150 obra esperimental inguru ikus daitezke, era guztietakoak: zinema eta bideoa, **instalazioak**, pintura, eskultura, argazkilaritza eta performancea, arte sozialki konprometitu eta arte aktibista. Erakusketa sei atal tematiko eta kronologikotan banatuta dago eta Museoaren bigarren solairu osoa hartzen du.

“Nire asmoa ez da berariak zaila den zerbait egitea [...] Niretzat, erronka handiena da neure burua adierazteko hizkuntza berri bat aztertzea, ez teknika sinplifikatzea.”[1]

“Beharrezkoa iruditu zitzaidan bai kultura txinatar tradizionalaren oztopotik bai mendebaldeko lehenengo modernismoaren eraginetik urruntzea artearen abiapuntura itzultzeko eta, literalki, hutsetik hasteko.”[2]

Ding Yi 1962an jaio zen Shanghain eta inprimategi batean egin zuen lan, 1983an Shanghaiko Arte eta Lanbideen Eskolan graduatu aurretik. 1980ko hamarkadaren amaieran hasi zen lan guztietan gurutzeak sartzen. Shanghaiko Unibertsitateko Arte Ederren Saileko ikasle zela, esperimendu piktorikoen serie bati ekin zion, *Gurutzeen itxura* izenekoa. Serie hartan, “x” eta “+” formak erabiltzen zituen behin eta berriro, pintura eta diseinua adierazpen modu bakarrean fusionatzeko asmoz.

Gurutzeen itxura, 1991-3 (1991) Dingen bilakaera artistikoaren lehenengo etapa horren adierazgarri da; Dinek berak “zehaztasun teknikoko fasea” esaten dio etapa horri [3]. Askotan, honen moduko obra bat pintatzen hasi baino lehen, kalkulu konplexuak egiten zituen konposizioaren azpiko egitura bat diseinatzeko. Prozesu piktorikoan, testura kentzen zien pintzelkadei, baita esanahia edo emozioa ere. Nahasi gabe aplikatzen zuen pintura, zuzenean hoditik hartuta, eta erregelak, zinta itsaskorra eta estilografoak erabiltzen zituen lerroak eta koloreak ahalik eta zehatzenak izan zitezen; horren guztiaren bidez, inprimaketa mekanikoaren eta diseinu industrialaren antzeko efektua lortu nahi zuen.

Diseinu-metodo oso arrazionalak aplikatuz, “pinturak ez ziruditen pinturak egiten” [4] saiatzen zen Ding, eta, azken hogeita hamar urteotan, pintura abstraktuak soilik sortu ditu etengabe, gurutze txikietatik abiatuta. Haren obra gehienetan, + zeinua errepikatzen da, geruza, kolore eta errotazio-gradu desberdinetan gainjarrita: eskuz pintatutako sinbolo txiki-txikiak mihise handien gainazal osoa hartzen dute; horretarako, zehaztasun, arreta eta gaitasun tekniko handia behar da. Nahiz eta Dingen metodoek pinturaren ikuspegi arrazionala islatzen duten, batzuen ustez guztiz bat dator Txina komunista aldakorrean hiri-ingurunea izaten ari den garapen industrialarekin.

GUGGENHEIM BILBAO

- Eztabaidagaiak

Erakutsi Ding Yiren obra, *Gurutzeen itxura 1991-3* (1991). Obra hau ikasgelan erakusten baduzu, saiatu denbora errealean proiektatzen. Galdetu ikasleei zer erreakzio izan duten obra ikustean. Haien ustez, nola egin du artistak?

Dingek hausnarketa eta introspektzio gisa ikusten du bere obra, eta baztertu egiten ditu narrazioa eta irudikapena bere jardura artistikotik, baina jakina da ikusleek era guztietako loturak egin dituztela haren pinturarekin. Formen koloreak, banaketa eta dentsitatea kontuan hartuta, haren pinturak ratanezko zerriak, ehunak, kamuflaje militarra, QR kodeak, sinbolo matematikoak edo haren jaioterriaren (Shanghai) aireko ikuspegiak ekartzen dizkigute gogora [5]. Galdetu ikasleei pintura honek zer bait gogorazten dien. Eska iezaiezu obrak iradokitzen dizkien loturen zerrenda egiteko.

Zaila da Dingek “x” eta “+” erabilia sortu dituen formak bereiztea obra bakarra behatuta. Bilatu irudiak Googlen; bertan, hiru hamarkadatan baino gehiagotan zehar Dingek sortu dituen obra ugari aurkituko dituzu; haietan guztietan, hain oinarritzkoak diren sinbolo horiek erabili ditu. Eskatu ikasleei azaltzeko nola aldatu den Dingen obra urteen poderioz. Zer neurritan du eragina haren beste obra batzuk ikusteak pintura isolatu honen pertzepzioan?

Behatu arretaz *Gurutzeen itxura 1991-3* (1991), eta eskatu ikasleei pieza hau sortzerakoan Dingek egin izan ditzakeen urratsen zerrenda bat prestatzeko. Orain, ikusi “What’s Left to Appear”. Bideo labur bat da, ingelesez, eta bertan Ding agertzen da lanean. (<http://www.timothyataylor.com/exhibitions/ding-yi-1/>). Nola eragiten du bideoa ikusteak ikusleek artistaren obraren aurrean duten erreakzioan?

- Jarduerak

Urteen poderioz, Ding gero eta espermentalagoa bihurtu da konposizioak aukeratzekoan, baina, hasieran, makinaz egindakoak ziruditen pinturak sortzen saiatzen zen. Egin erronka ikasleei mekanikoki sortutako pieza batekin nahas daitekeen obra txiki bat eskuz sortzeko. Obrak amaitu ondoren, eska iezaiezu beren erabakiak, prozesua eta emaitzak azaltzeko. Zer logika erabili dute materialak eta konposizioa hautatzeko? Espero baino errazagoa edo zailagoa izan da? Metodoak azaldu ondoren, galde iezaiezu zer aldaketa egingo lituzketen, aldaketarik egin nahi izanez gero, ariketa berriro egin beharko balute.

Esan bezala, Ding espermentalagoa bihurtu da konposizioak hautatzekoan, baina hainbat kolore-paletarekin ere espermentatu du: ilunak, neutroak, biziak eta alaiak, baita fluoreszenteak ere. Eskatu ikasleei konposizio abstraktu txiki eta soil hori bera sei orritan marrazteko (edo fotokopiagailu batean kopiatzeko), eta bakoitzean kolore-paleta bat erabiltzeko. Seiak amaituta egotean, eska iezaiezu azaltzeko nola aldatzen duen kolore-paletaren aldaketak obra txiki horietako bakoitzaren eta haien loturen eragina.

Dingen obra osoa prozesuan eta ekintzaren errepikapenean oinarritzen da. Zergatik dira desberdinak pintura mota hau eta pintura errealista edo **espresionismo abstraktua**? Pintura errealistak zehaztasun osoz irudikatzen ditu gai eta egoera garaikide tipiko eta errealak, eta espresionismo abstraktuak, berriz, sorkuntza naturalean, automatikoan edo subkontzientean jartzen du arreta.

HIZTEGIA

Espresionismo abstraktua: XX. mendearen erdialdeko mugimendu artistikoa; askotariko estiloak eta teknikak hartzen ditu barnean, eta, bereziki, bitarteko ez-tradizionalen eta, oro har, ez-figuratiboen bidez jarrerak eta emozioak adierazteko artistak duen askatasunean jartzen du arreta.[6]

BALIABIDEAK

Obirst, Hans Ulrich, *The China Interviews*, Office for Discourse Engineering, Hong Kong eta Pekin, 2009

What’s Left to Appear: <http://www.timothyataylor.com/exhibitions/ding-yi-1/> 1980ko hamarkadako arte garaikide txinatarrari buruz Ding Yiri egindako elkarrizketa: https://www.youtube.com/watch?v=EUGOybx6_JM

OHARRAK

[1] Ding Yi, hemen aipatua: Gaskin, Sam, “Why is Ding Yi One of China’s Most Popular and Collectible Artists?”, *Artnet News*, 2015eko uztailak 28, <https://news.artnet.com/market/ding-yi-interview-at-long-museum-west-bund-320127>

[2] “Ding Yi”, Richard Taittinger Gallery, <https://richardtaittinger.com/artist/ding-yi/>

[3] *Art and China after 1989*, 120. or.

[4] Ibid.

[5] “Ding Yi”, Richard Taittinger Gallery, <https://richardtaittinger.com/artist/ding-yi/>

[6] [5] Merriam-Webster’s Collegiate Dictionary hiztegiaren egokitzapena (11. edizioa)